

euskal bidea elkarrekin Euskal Etxea eraikitzeko

Euskal Herri burujabearen autoeraketa ibilbide demokratikoan partekatzeko eskaintza.

1.- KOKAPEN OROKORRA: AUKERA HISTORIKOA BALIATZEKO ERRONKA

Aukera historikoa baliatzeko erronka dugu esku artean, euskal herritarrok gure bide propioa egitekoa, inoren zain egon gabe. Euskal Herriak burujabetza helburu duela autoeraketa ibilbide demokratikoan era partekatuan egiteko erronkan murgiltzeko eskua luzatzen dugu Euskal Herria Bildutik.

1.1.- MENPEKOTASUNAREN ONDORIOEN ATAKAN, GURE BURUA ANTOLATU EZINIK

Euskal herritarrok baditugu kezkatzeko arrazoi pisudunak, zatiturik, herri gisako aitortpenik gabe eta erabakiak libreki hartzeko tresneria politiko-instituzionalik ez duen herri honetan. Euskal herritarrok ezin dugu gure burua aske antolatu eta subordinazio egoera honek zailtzen du gure herriaren garapena. Munduari so eginaz baina gure herria lehenetsiz eman beharko genukeen erantzuna oztopaturik agertzen zaigu, espainiar eta frantziar estatuak berenganatzen dutelako erabakitzeko ahalmena, menpekotasun harremanak inposatuz.

Estatu propioa izan eta indarrez kendu zioten herri zahar honek estatu espainiarraren eta frantziarraren menpean mende luzeak daramatza ipar propiorik gabe bizitzera kondenatuta. Historian zehar menpekotasuna mantentzeko eredu ezberdinak erabili dira eta horren ondorioz, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa erabateko ukazioaren pean ditu frantziar estatuak, eta espainiar estatuaren menpeko lau lurraldeak bi administrazio autonomikoetan banatuak.

Errealitate global aldakor honetan Euskal Herriak bere bidegurutze propioa bizi du eta garai berrira eraman gaitzakeen bidean murgiltzea euskal herritar askoren nahia da. Zazpi lurraldeetako euskal herritarrok etorkizun propioa elkarrekin eraikitzeko garaian gaude. Euskal Etxea elkarrekin eraikitzeko bide propioa hartuz, bakoitzak bere errealitatea presente izanik. Euskal bidea da oinarria, burujabetza osora arteko ibilbidea egiteko. Hala, ekonomian, politika sozialetan, hezkuntzan, gure hizkuntzaren suspertzea,

kulturan, ingurumenaren zaintzan eta hainbat arlotan urratsak egunez egun eginez, beti ere gure ekinbidean burujabe izanez.

Frantziar eta espainiar estatuek, gure herriari aspaldi behar eta nahi zituen aldaketa eta bake itxaropenak mugatu nahi dizkiote. Erabat argigarria da itxaropenari ateak parez pare ireki dizkion fase berri honetan frantziar eta espainiar estatuek hartutako jarrera, sortu den aukera mespretxatuz eta etengabe itxikeriarik ankerrena adieraziz. Euskal bidea da oinarria bi estatuek zapuztu eta ezindu nahi dituzten bake eta burujabetzaren aldeko aroan aurrera egiteko.

Are makurrago, atzerapen joerak nagusitzen dira bi estatuen botere esparruetan. Euskal Herria kontinentalean, lurralde kolektibitateari ateak itxiz, Euskal Herria penintsularrean, pertsekuzioa eta eskubideen urraketa luzatuz eta estatuaren birzentralizazioa bultzatuz. Tamalez, espainiar eta frantziar nazionalismoaren baitan, irekiera joerak zabaldu beharrean jarrera itxienak nagusitzen ari dira.

Eta bi estatuek, bereziki espainiarrak, eragin duten krisialdi ekonomikoarekin herri gisa kanpo botereen menpekoagoa egin nahi dute Euskal Herria eta kateatuagoa euskal herritar bakoitza.

1.2.- OSTARTEAK IREKITZEN DIRA EKAITZAREN ERDIAN, BADAGOELAKO BESTE BIDERIK

Dena ez da ilun, berriz. Izan ere, posiblea da egoera honi aurre egitea eta gure herriak agerrarazi du horixe egiteko determinazioa, une latzenetan ere.

Ondare erraldoia dugu abiapuntu gisa: bakean eta aske bizi nahi duen herri bat. Bere burua antolatu eta gobernatzeko gai sentitzen den herria. Beste batzuen menpe baino hobe biziko dela pentsatzen duen herria, hots. Finean, mendeetan zehar, menpekotasun eta inposizio garaietan ere, autoeratzeko eta bere burua gobernatzeko joera izan duen herria.

Beti maite izan du Euskal Herriak bere burua antolatzea. Bestelakoak izan dira honen zehaztapena galarazi dituzten arrazoiak, baina gure herriak beti gorde du autoeratzeko joera, gaur egungo egoera ahalbideratu duena.

Ez gara ezer hutsetik abiatzen, beraz. Ibilbide luzearen erroak aurrean ditugu, eta batez ere, bere burua heldutzat jotzen duen XXI. mendeko herria gara.

Ikasi eta ikusi duen herria, alegia. Etorkizuna espainiar eta frantziar estatuen eskuetan utzi nahi ez duena.

Nabarmena da iritzi ezberdinak daudela gure herrian. Nazio sentimen ezberdinak atzematzen dira euskal herritarren artean. Egitasmo ezberdinen arteko ezberdintasunak begi-bistakoak dira. Baina oro har, politikagintza bertatik bertara egiteko joera nagusitzen da era nabarmenean. Honek jarduera politiko partekatuak garatzeko aukerak eskaintzen ditu, zailtasunen gainetik.

Espainiar eta frantziar estatuen itxikeriak biziki ahuldu ditu estatu hauekiko menpekotasun harremanen baitan euskal habiarik egiteko aukerak. Estatuetik atxikipen mailak jaisten direlarik, gutxi espero daiteke iragarritako edo behintzat mahai gainean jarritako estatuen birmoldaketa proposamenetatik. Agortuta dago bide hori eta, beraz, alferrikakoa da horma horren kontra buruz jotzea, kontsentsuaren apologiaren izenean bada ere.

Katalunian atzeman da azkenengo urteotan, Eskozian ez bezala, zein den sezesio aukeraren aurrean espainiar estatuan nagusitzen den joera.

Etorkizuna ez da hortik etorriko. Iraganaren etengabeko errepikapen mugatua besterik ez digute eskaintzen Espainiak eta Frantziak, areago krisialdi testuinguru honetan.

Irtenbidea beste bidetik etorriko da, bertatik bertara eraikiko dugun bidetik, hots. Euskal bidea da espainiar eta frantziar irteerarik gabeko bideetatik ateratzeko aukera bakarra.

Badugu bide horri eusteko indarra. Gure herriak bere etorkizunaren jabe izan nahi du. **Har dezagun, beraz, geure bidea, Euskal Bidea, geure etxea denon artean eraikitzeko.**

Nabarmena da egoera interesgarriaren aurrean gaudela, zeinean gertatzen ari den espainiar eta frantziar estatuen aldeko atxikipenaren gainbeherak parada ederra eskaintzen baitigu, noiz eta aurrerapen garrantzitsuak ematen direlarik estaturik gabeko hainbat herriren eskaeren inguruan, bereziki Eskozian eta Katalunian, beste batzuk ahaztu gabe.

Nabarmena da ziklo sozio-politiko berrian sartu dela Euskal Herria, zeinean, baldintza berriak agertu baitira urrats sendoak emateko gatazkaren soluzioetarako nahiz herri askapenaren esparruan.

Baldintza hauek, gainera, ez dira koiuntura ikuspegian kokatu behar, ez baitira soilik gertaera zehatz batzuen ondorioak, sakoneko joerak agerikoak direlarik. Honelako egoera batean, geldirik geratzea edota etsipenean erortzea suizida litzateke Euskal Herriarentzat.

2.- EUSKAL BIDEA HAR DEZAGUN GEURE ETXEA ERAIKITZEKO

Mugitzeko garaia da gurea. Agertoki berrietara joateko unea, zerumuga berrien bila abiaturik, Eskozian, Katalunian eta beste hainbat lekutan abiatutako jardueren bide beretik, geure erara, bertatik bertara, hemengo egoera eta baldintzen arabera.

Gauzak horrela, bi dira gure proposamenaren gako nagusiak.

Lehena, bertatik bertarako jarduerak garatzeko beharra: Euskal Herriak euskal bidea, bide propioa, behar du, Euskal Herriak bere etorkizuna prestatu eta eraiki behar du, bere buruaren jabe izanez. Honi **Euskal Bidea** deitu diogu, bertatik bertarako politikagintza lehenesteko konpromisoa, euskal agenda partekatuz, politikagintza endogenoa lehen mailan kokatuz, gaur egungo menpekotasunezko harreman moldeak hobetzeko (bestela esanda, zama arintzeko saioretan murgiltzeko) tentaldia gaindituz.

Bigarrena, zerumuga partekatzeko deialdia, euskal herritar guztion elkarbizitzarako esparrua izango den Euskal Etxea eraikitzeko konpromisoa eta gonbita eskaintza.

Euskal Etxearen eraikuntza jarduera garatzeko elkarlana da, beraz, proposatzen duguna. Zer-nolako etxea, nola egingo dugun, arkitektura, planoak, materialak, denborak, antolakuntza, gela banaketa, leihoak, ateak, denon artean erabaki eta eraiki beharko ditugu, eraikuntzak berak elkarbizitza sustatu eta errotzeko aukera eskaintzen digularik.

Eraikuntza jarduera honek hiru osagai behar ditu: **autoeraketa** prozesua izatea, **euskal lurralde desberdinen arteko kohesioa** lantzea abiapuntu eta abiadura desberdinak errespetatuz eta **burujabetza era progresibo** batean garatzea.

2.1.- AUTOERAKETA PROZESUA

Finean, **Euskal Etxea eraikitzea autoeraketa prozesua** litzateke, non euskal herritarrok geure burua antolatuko genukeen, pausoka, gure arteko akordio, konplizitate eta erabaki demokratikoen arabera.

Bide horretan **Estatuekiko lehia demokratikoari** ekin beharko diogu: onena estatuekiko akordioak lortzea litzateke, baina ukazio historikoak eta gaur egungo errealitateak ez du horretarako beta handirik adierazten. Estatuaren ereduak ez dute Euskal Etxerik kontenplatu, beraz, soilik bide propiotik eraiki ahalko dugu Euskal Etxea, euskal herritarren gehiengoaren borondatearen nahiarekin. Estatuak urratu ezingo dutena.

Euskal Herritik Euskal Herrira biziz eta pentsatuz, gizonetzko eta emakumezko aukera eta eskubide berdintasunean eta auzolana tresna zaharra egunero eraberrituz Euskal Etxea eraiki behar dugu.

2.2.- ABIAPUNTU (ETA EGOERA) DESBERDINAK ERRESPETATUZ, EUSKAL BIDEA EGITEA

Era berezian, Euskal Etxea eraikitzeko proposamenak gure herriaren **lurraldetasun mailako aniztasun korapilatsua** hartzen du aintzat, zatiketa eta anexionismo oro alboratuz, denon artean eta era demokratikoan aska dezagun, etxea geure erara eraikiz, kanpoko inposizio gabe eta sentsibilitate, denbora eta jokamolde guztiak errespetatuz eta uztartuz.

Euskal Bidearen baitan abiapuntu eta abiadura desberdina duten bideak daudelako, Nafar Bidea, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako Bidea eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Bidea. Baina Euskal Bidearen baitan dauden bide guzti-guztiek dute helburu bakarra: Euskal Etxea bere aniztasun osoan eraikitzea.

2.3.- BURUJABETZA ERA PROGRESIBO BATEAN GARATZEA

Espainiar eta frantziar estatuak inposatzen dizkiguten neurriek Euskal Herria nazio gisa ukatzeaz gain, euskal herritarren oinarrizko eskubideak urratzen dituzte. Azkenaldian estatuak zentralismorako joera indartu dute, kudeaketarako erabaki ahalmen murrizta praktikan ezabatuz. Gure eskubide zibil eta politikoak ez ezik, sozialak, ekonomikoak eta kulturalak ere arriskuan daude, espainiar eta frantziar estatuaren eredu ekonomiko eta sozialaren ondorioz.

Euskal herritarrok erabakitzearen eskubidea daukagu, estatuak aitortzen ez diguten eskubide unibertsala. Eta aitortza aldarrikatuko badugu ere, noiz onartuko zain egon ezin garenez, Euskal Bidea gure erabakien eskutik egin nahi dugu. Euskal Herrian erabaki nahi dugu. Ez gara gure etorkizuna erabakitzearen egun seinalatu baten zain geldituko, egunero gure erabakiak Euskal Herrian hartu nahi ditugulako.

Euskal herritarrok estatuetatik etortzen zaizkigun inposizioen aurrean Euskal Herrian erabaki behar dugu. Gure erabakiek inposizioei aurre egiteaz gain, gure alternatiben oinarri izan behar dutelako. Euskal Herrian erabakiz estatuaren inposizioei aurre egiteaz gain, gure alternatibak eratuko eta egunero gure buruaren jabeago bilakatuko gara.

Euskal Etxea eraikitzearen jardueraren honetako **hainbat konpromiso** behar ditu, aurrera joan ahal izateko eta **konpromisook Euskal Bidea osatzen dute:**

- **Politikagintza eraikitzailea lehenesteko konpromisoa**, indarrak biltzeko determinazioa duena, dena ala ezer ez dikotomia mahai gaineratzeko tentaldia baztertu eta adostasun estrategiko eta orokorrak lortzea baztertu gabe, adostasun, akordio eta konplizitate zehatzen bila joan dena.

- **Herritarrak subjektu nagusia bilatzeko konpromisoa, eragile guztien arteko artikulazioa orekatuz.** Gure herriak izan behar du Euskal Etxearen eraikuntzaren protagonista nagusia eta bide horretan **euskal eragile guztiek izan behar dute paper protagonista partekatua.**

- **Denon etxea izango den eraikina altxatzeko konpromisoa.** Elkarbizitzarako esparru egokia izango den etxea eraiki behar da, ahalik eta atxikipen gehiena lortuko duena, zeinean herritar gehienak eroso sentituko diren.

- **Zeharkakotasuna aintzat hartzeko konpromisoa jokabide publiko guztietan.** Euskal Herrian bizi diren jatorri, iritzi eta atxikimendu desberdinetako pertsonekin eraiki beharko da nahitaez etorkizuna eta elkarlanak elkarren errespetuan oinarritu behar du.

Aniztasuna baliatu eta bideratuko dituzten joerak garatzeko konpromisoa: elkarrekin geure bidetik ibiltzeko xarma baliatuz, inposizioak baztertuz, ilusioak piztuz, zubiak eraikiz. Ezberdintasunak kudeatu beharko dira, **elkarbizitza demokratikoa** bermatuko duten konpromisoen arabera.

- **Herritarron artean aukera eta eskubide berdintasunean oinarrituko den Euskal Etxea eraikitzeko konpromisoa,** demokratikoki jardungo duena, ahalik eta justuena, diskriminaziorik gabekoa, zeinean denek eskubide berdinak izango dituzten. Zentro-periferia, goia-behea eta horrelako ezberdintasun injustuak gaindituko dituen etxea. Eroso sentitzeko eta bizitzeko aukera eskainiko digun etxea.

- **Euskal herritarron eskubide sozialak bermatuko dituen Euskal Etxea eraikitzeko konpromisoa,** krisi sistemiko honen baitan, non gero eta herritar gehiago egoera lazarriak pairatzen ari den, espainiar eta frantziar estatuetatik jasaten ari garen inposizioak gure oinarritzko eskubideak arriskuan jartzen ari dira. Hori dela eta, justizia sozialean oinarrituko den Euskal Etxea gero eta beharrezkoagoa zaigu.

- **Euskal Etxearen zerumuga partekatzen dugunon eta partekatzen ez dutenen arteko errespetu eta elkartasuna lehenesteko konpromisoa:** beligerantzia mailak neurtzeko konpromisoa, ez areriotasun politikoak, antagonismo sozialak edo bestelakoak ixteko, baizik eta bestela bideratzeko, herritar guztion giza eskubideekiko begirunez, Euskal etxearen eraikuntza ahalbideratuz.

Jendarteak bere burua aske eta demokratikoki antolatzeko determinazioan datza egitasmoaren gako nagusia. Demokrazia kontzeptuan sakontzeko deliberoan datza, Euskal Etxea eraikitzeak Demokraziari ekarpena egiten baitio.

3.- EUSKAL ERAGILE ETA EUSKAL JENDARTEARI LUZATZEN DIEGUN ESKAINTZA

Euskal Etxea denon artean eraikiko dugu, ala ez da denon etxea izango. Urratsik egiten ez ditugun bitartean espainiar edo frantziar geletan biziko gara, geurea eta beste inoren gobernuak ez den etxean bizi beharrean.

Deialdia zabaldu nahi diegu euskal herritar guztiei eta euskal eragile guztiei Euskal etxearen eraikuntzari erreparatzeko.

Proposamen honekin ez dugu zerupean ez zegoen deus asmatu, aspaldiko grinari gaur egungo erantzuna eman nahi izan diegu, ordea, euskal herritar gehienon asmoetan dagoena irudikatu nahian.

Gurea ez da hordagoa, ezta proposamen itxi eta borobila ere. Gurea esku luzatua da, ideiak eztabaidatzeko eskaintza. Nola garatuko den ez dugu guk erabakiko, euskal herritarrok eta euskal eragileok baizik, erabakitzeko ahalmena gauzatzen den heinean.

Argi dugu aukera mahai gainean dagoela eta ezin dugula pasatzen utzi. Etorkizuna erronka honi ematen diogun erantzunaren arabera izango dela irizten dugu. Euskal Etxea eraikitzeari eusten badiogu Euskal Etxea izango dugu, bestela gaur egungo menpekotasun eta zapuzketa egoeran jarraituko dugu.

Posiblea da urrats zehatzak egitea. Eman ditzagun, beraz!

Proposamenaz gain, konpromiso zehatza da geurea. Guk beste eragileei luzatzen diegu eskua proposamen honetan agertzen diren ideiak eztabaidatu eta adosteko, baina erantzuna nolana izanik ere, gure hitzari eutsiko diogu. Beste batzuek bestelako sintoniak lehenesten badituzte ere, gure eskua luzatuta egongo da eta Euskal etxearen eraikuntzari eutsiko diogu indar oroz.

Aspaldiko partez Euskal Herriaren txanda iritsi da. Pasatzen uzten badugu, espainiar eta frantziar estatuek ez dute gauza bera egingo. Eta argi dago zer egingo duten inizatiba politikoa beraien eskuetan izanda.

Espainiar eta frantziar estatuek ulertu behar dute gure herriak ez duela gaur egungo egoeraren luzapena onartzen eta, beraz, determinazio osoa daukala bere bidea egiteko, bere etxea, hots, Euskal Etxea, eraikitzeko.